


## Gaztefilm



Gasteizko hainbat tokitan  
Urtero azaroan  
Gazte eta umeentzako zinema jaialdia

Nork ezagutzen ditu haurrak haurrek berek baino hobeto? Jaialdi honekin talde-esperientzia hezigarri bat abiarazi nahi da, non haurrak izango baitira, praktikaren bidez, proiektuaren eragileak.

## Informazioa

Abenduan, Vitoria-Gasteizen izango dira jaialdi honen proiektzioak. Jaialdi horren programazioaren ezaugarri nagusia mundu osoko gazteentzako ikus-entzunezko lan garaikideak ekartzea da, zirkuitu komertzialetan erakusten ez direnak. Publiko horiei zuzendutako mundu osoko filmografiak ezagutzeko aukera paregabea da. Hautatzeko irizpideak honako hauek izango dira: kalitate zinematografikoa, eklektizismo teknikoa eta estilistikoa (animazioa, dokumentala eta fikzioa) eta aniztasun tematikoa. Bereziki azpimarratuko dira jasangarritasuna eta animaliekiko errespetua, adiskidetasuna eta elkartasuna, maitasunaren forma desberdinak, bakardadea eta emozioen kudeaketa, edo heriotza eta ausardia

Antolatzaileek diotenez, munduan egiten den mota honetako ekimen bakarra da, eta hamar egunetan 40 jarduera inguru eskainiko ditu, emanaldi, tailer eta kontzertuen artean. Jasotako 800 proposamen baino gehiagoren eta nazioarteko jaialdietan aurkitutako beste askoren

artean egindako film-aukeraketa zainduaren emaitza da programazioa.

**Vital Fundazioak**, Zinhezba eta KalakaLab kultur elkarteekin batera, haur eta gazteentzako ekimen berritzaile hau antolatzen du. Gaztefilm Festek zinema-gune bat sortu nahi du 18 urtetik beherakoentzat, bereziki 12 urte beherakoei arreta jarrita, areto komertzialek eskaintzen dutena ez bezalakoa. Espazio horretan, beste mota bateko filmak eskaini ahal izango zaizkie, haientzat pentsatuak eta sortuak, eta ez entretenimendura soilik bideratuak.

**Informazio gehiago** [gaztefilmfest](#)